

Nobela haundien jatorrizko testuen kopia faltsuak saldu dira EEBBetan

Ernest Hemingway, Mark Twain eta abarren testuekin egin dute iruzurra

Collectors' Reprint argitaletxe iparramerikarrak liburu ospetsuen lehen edizioen faksimilak saltzen ditu jatorrizko testuak balira bezala eta honek iskanbila galanta sortu du EEBBetan.

INAKI BASTARRIKA / DONOSTIA

F. Scott Fitzgerald-en 'The Great Gatsby', Mark Twain-en 'The adventures of Huckleberry Finn', William Faulkner-en 'The Sound and the Fury' eta beste hogeitabost bat obra ospetsuren lehen edizioak 3.300

pezetan salgai jarri dituzte. First Edition Library izeneko serieak egundoko buruhaustek sortu ditu arkeologo, historialari, eta filologoen artean. Liburu hauek 1925, 1884 edota 1927n argitaratu ziren liburuekin erabateko antza dute, azalak berdina dira, paperak konbinazio kimiko bera du eta formatoa dagokionez nekez bereiz daiteke faksimila lehen argitaraldikotik. Jatorrizko testuetan dauden akats tipografikoak ere bere horretan uzten dituzte eta baita jatorrizko salneurria ere. Salmentarako artifizio bikaina da azken batean, erosleak 'liburu zahar berriak' erosten ditu eta pozarren gainera.

ERNEST HEMINGWAYREN TESTUA

Orain egun batzuk Ernest Hemingwayren 'The Sun Also Rises' eta Sherwood Anderson-en 'Winesburg, Ohio' liburuen lehen edizioak ale bakoitzagatik miloi bat pezeta (50.000 libera) ordaindu zuten, noski jatorrizko testuak zirelakoan. Manhattanen 1987n sortutako Collectors' Reprint enpresak 1990ean miloi t'erdí dolar irabazi zuen, izan ere benetako profesionalak bait dira euren lanean.

Liburuen lehen argitaraldiak oso estimatzen dituzte kolezionistek



Francis Scott Fitzgerald eta Ernest Hemingway.



eta horregatik dute liburu hauek horrenbesteko arrakasta. 'Irakurlego aukeratuari' saltzen dizkiete liburu hauek, baina finean edonor izan daiteke irakurlego aukeratu horren partaide.

Zahiaz ogia egiteko era honek mugitu duen dirutzaz gain bada beste

alderdi aipagarri bat: Jatorrizko testuen faksimil hauek errata guztiak berdin berdin ateratzen dituzte eta esate baterako Ernest Hemingwayren liburu bateko Catherine Barkley berriz ere Katherine Barclay irakur daiteke, horrelakoek sortzen dituzten hausi-mausiek.

IRAGARKI MERKEAK Tfna.: (943) 46 90 22

oskorri

Disko berria

bi ere dantzari

Kontratuetarako (94) 416 31 22

SENDAGILE DENTISTA

J. M. ARIZALA
ASEGUROAK: Lagun Aro, Diputazioa, Previsia, Asisa, Capisa, Ipresa, Medifia, Salud Data
Ferrerias plaza, 5-entr.
Tfna.: 45 90 45
Amara DONOSTIA

34x17mm

EGUN BAT 840pta/42l.
ASTEBETE 4.160pta/208l.
BI ASTE 7.200pta/360l.
HILABETE 10.100pta/505l.

EUSKARAZ

TXEKOSLOVAKIA
HUNGARIA
33.000 pta
ABUZTUAN (4-25)
GUARA MENDIKATEA
KAINOEN JAITSIERA
25.000 pta
ABUZTUAN (12-19)
(19-25), (26-1)
AZKEN LEKUAK
INFORMAZIOA:
Diputazio kalea, 3-1. eskn.
Tfna.: 424.17.10 BILBO

gek bidaiak

34x37mm

34x37
MODULO
EGUN BAT 1.680pta/84l.
ASTEBETE 8.320pta/416l.
BI ASTE 14.400pta/720l.
HILABETE 20.200pta/1.010l.

Bidaiak
THINDUKI, S.A.

PORTUGAL OSOA 9 EGUN	38.900 pta.
MAROKKO HIRI INPERIALAK 10 EGUN	47.100 pta.
MAROKKO ATLAS SAHARA 12 EGUN	55.900 pta.
ITALIA 12 EGUN	55.700 pta.
ITALIA BUSA + HOTELA 11 EGUN	64.900 pta.
PARIS HERBEHEREAK 10 EGUN	48.900 pta.
EUROPAKO MUINA	
ABIOIA + BUSA 12 EGUN	74.600 pta.
INGALATERRA ESKOZIA	
ABIOIA + BUSA 11 EGUN	76.300 pta.
ESKANDINAVIA ABIOIA 10 EGUN	95.300 pta.
ESKANDINAVIA FIORDOAK	
ABIOIA 10 EGUN	102.900 pta.
IPAR LURMUTURRA ABIOIA 15 EGUN	143.600 pta.
TURKIA ABIOIA 15 EGUN	94.400 pta.
GREZIA ISTANBUL CAPADOZIA	
ABIOIA 15 EGUN	94.700 pta.
GREZIA ISTANBUL ABIOIA 15 EGUN	92.700 pta.
KENIA ABIOIA 10 EGUN	167.000 pta.
INDIA NEPAL ABIOIA 20 EGUN	198.400 pta.
INDIA NEPAL ABIOIA 16 EGUN	203.600 pta.
TAILANDIA ABIOIA 13 EGUN	143.700 pta.
SINGAPUR MALAYSIA TAILANDIA	
ABIOIA 15 EGUN	189.400 pta.
TXINA ABIOIA 21 EGUN	212.000 pta.
TXINA TIBET NEPAL ABIOIA 23 EGUN	293.000 pta.
ESTATU BATUAK KANADA	
ABIOIA 15 EGUN	157.000 pta.
MEXIKO NEW YORK ABIOIA 15 EGUN	189.000 pta.
MEXIKO GUATEMALA ABIOIA 22 EGUN	229.000 pta.

FRANZISKO GASKUE, 1 / Telf.: 52 45 12 / 20100 ERRETERIA
ETXAGUE GENERALA, 14 / Telf.: 42 38 84 / 20003 DONOSTIA
URDANETA, 11 Behea / Telf.: 88 72 00 / ORDIZIA
LEGAZPI, 8 Behea / Telf.: 72 37 76 / ZUMARRAGA

TURKIA 15 EGUN	128.000
EGIPTO 18 EGUN	148.000
INDIA/NEPAL 28 EGUN	252.000
INDIA HEGOALDEA 22 EGUN	228.000
INDONESIA 29 EGUN	333.000
FILIPINAK 29 EGUN	286.000
TAILANDIA 22 EGUN	212.000
MEXIKO/GUATEMALA 27 EGUN	314.000
ISLANDIA 14 EGUN	225.400
KENIA 17 EGUN	227.500
ALGERIA HOGGAR 11 EGUN	135.000
MALI 16 EGUN	275.000

SAHARA 26 EGUN	161.000
ZAIRE 15 EGUN	216.000
PERU/BOLIVIA 29 EGUN	306.000
BRASIL/AMAZONA 23 EGUN	364.300
TREKKING	
LADAKH 29 EGUN	308.000
ANNAPURNA 29 EGUN	298.000
PAKISTAN 28 EGUN	225.000
EVEREST 24 EGUN	324.500
DOLPO 22 EGUN	365.000
PERU 24 EGUN	361.000
ACONCAGUA 22 EGUN	295.000

Aduana kalea 5
Tfna.: (943) 61.51.77
Faxa: (943) 61.95.17
20300 IRUN



ERRO
BIDAIK

Urbietia 6
Tfna.: (943) 33.00.49
20120 HERNANI

Andrei Serban antzerki zuzendari errumaniarra Parisen da berriro

PARISE

Andrei Serban zuzendariak gidaturik, Bucurestiko Antzerki Nazionala 'Medea', 'Troiarrek' eta 'Elektra' antzezlanak ematen ari da egunotan Pariseko La Villette-ko antzokian. Joan den ostegunean hasi ziren emanaldiak, 'Paris, quartier d'ete' ('Parise, udako auzo') izeneko jaialdiaren barruan.

Peter Brook-ekin batera, Parisen izan zen 1972an Andrei Serban, bertako Nazioarteko Ikerketa Zentruan. Errumaniara itzultzeari uko egin —Ceausescuren tiraniak hartaraturik— eta New Yorkera jo zuen orduan. Baina orain, Pariserantz itzuli denean, Errumaniatik itzuli da, Ceausescuren agintea amaitu zenetik bertan bizi bait da Serban, eta Bucurestiko Antzerki Nazionalako zuzendari bait da gainera.

Bere trilogia greziarrean, Serbanek grekera zaharra erabiltzen du, «inoiz erabili izan den materialik emankorrena» bait da bere ustez. Peter Brook lankideari eskainitako 'La



Antzele bat lanean.

vie du son' ('Soinuaren bizitza') izeneko idazlanean, honela dio Serbanek: «Aktorean lana soinu hori berreskuratzea da, soinu horri zerbitzatzeari, eta zer egin dezakeen ikusteari».

Datorren urterako, antzele gazteekin lan egiteko asmoa du Andrei Serbanek.

'Picasso 1905-1906' erakusketa eratuko dute Barcelonan 1992an

BARCELONA

Barcelonako Picasso museoak 'Pablo Picasso, 1905-1906' izeneko erakusketa antolatu behar du datorren urterako, eta bertan Picassoren 150 koadro baino gehiago bilduko dira, pintorea Pariserantz joan zeneko garaian eginak guztiak, eta 'Las señoritas de Aviñon' koadro famatua baino lehenxeagokoak.

Picassoren pinturak bizi izan zuen bilakaeraren une erabakior bat erakutsiko dute museoan bildutako koadroek. Picasso museoak Bernako (Suitza) Kunstmuseumaren laguntza izango du erakusketa antolatzeko. Koadrorik gehienak bilduma pribatuetatik eramango dituzte Barcelonara, eta zenbaiten kasuan lehen aldiz aterako dituzte beren ohizko erakustegitik.

Erakusketa hau eratzea lan handia izango dela adierazi dute Picasso museoko zuzendariak. «Seguruetan eta garraioetan oso gastu handiak egin beharko ditugu. Ardura berezia eskatzen dute, gainera, gouachearen teknikarekin egindako koadroek». Era guztietako teknikak erabili ohi zituen Picassok bere lanetarako, erakusketa honek jasotzen duen ikasketa eta bilakaera garaian batez ere.

Sail ezberdinetan banatuko da erakusketa. Urdinetik arrosarako pausua garaia jasoko da sail batean (zirkoaren munduari buruzko obsesioa izan zuen garai horretan Pablo Picassok), eta 1905eko udaren ondoren egindakoak beste sail batean ('Las señoritas de Aviñon' lanaren azken aitzindariak diren lanak).